



# E K B e r r i a k



## ZABALDU ETA TRINKOTU

*Euskalgintzaren alorrean herritarren ahaleginak bateratzeko mota guztietako erakundeak izan daitezke egokiak. EKB euskalgintzako mugimendu sozial osoaren zerbitzurako eta kultur sail ezberdinetako nahiz herri eta auzoetako erakunde eta ekimenen koordinaziorako antolatua zen. Euskararen berreskurapen osoari begira, indar sozial guztien positibizazioa eta ahalegin guztien optimizazioa da EKBren oinarritzko helburua.*

*Koordinazioa zabaltzea, harremanak irekitzea, elkarlana handitzea: hori izan duela uste dugu EKBk orain arteko jokabidea. Areagotu beharra ikusi zuen, ordea, bere hirugarren Batzarre Nazionalaren inguruko gogoeta*

*kritikoan, orain arteko mugak eta eragozpenak gainditzeko. Aparteko ahalegina egin du bide horretatik ordutik hona, bai erakunde herritar eta sozial ugariarekin bai zenbait erakunde publikoekin. Ondorioak emankorrak izan dira; konfiantza berria suspertu da aurrera begira. Irekita dago bidea.*

*Dena dela, garbi dago azpiegitura sendoa eta trinkoa izan behar duela koordinazioaren markoak, ez gainegitura hutsa, barrutik hustua. Horretarako bai behar ko direla sektore guztien barruko koordinazioa eta partaidetza bizia.*

*Hortxe dugu denon apostua.*

*Paulo Agirrebaltzategi*